

Amaiurtarra



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Aise adituko diezue adin bateko espainolei, zerbaiten larritasuna gutxietsi edo apaletsi nahi dutelarik: “Kuban gehiago galdu zen”, harako 1898 hartako inperio kolonialaren hondarren galera gogoan. Hungariarrek ere, gisako esamoldea omen dute, adiera berberarekin testuinguru berdinean erabiltzen dena: “Mohacs-en gehiago galdu zen”. Ez dakienak jakin dezan, hungariarrek Mohacs-eko batailan galdu zuten independentzia, turkiar otomanoen kontra, XVI. mendean. Gure artean, berriz, are gutxiago gure hizkuntzan, inoiz ez da sortu “Noainen gehiago galdu genuen” edo gisako esamolderik, gure historia tristearen oroigarri.

Zintzoki erranda, berriki samar arte hemen inork ez zuen galeratzat hartzen duela bost mende galdu genuena. XIX. mendean, oroitzapen lauso bat baizik ez zen gelditzen 1512-28ko gertaeretatik, iragan-min mehe-mehe bat gorpuzteko gauza ere ez zena. Horrela, Nafarro(et)an. Gainerako herrialdeetan, ezta hori ere. Oroimena orainean sustraitzen dela erakutsi ziguten Kanpionek eta bere lagunek, gure historiaren atal ahantzi hura gitara ateraz. XX.aren azken ur-

Ez du lan makala
erresuma zaharraren
errautsekin
errepublika berriaren
zimendua eraiki
nahian dabilen tropak.
Zail du,
baina nork jakin

teetatik hona, gaiaren gaineko erauntsia bizi izan dute gure liburu dendetako apalek. Militanteen aitzinetik joan dira historialariak.

2012an, konkistaren 500.enean, atera zen zalaparta gehien. Iaz, berriz, duela 5 mende Fernández de Velascoren kanoiek Asparrotsen oinezkoekin baino suntsigarriago jokatu zuen COVIDak Noaingo batailaren mendeurreneko os-

pakizunekin. Aurten, motel hasirik ere, nolabaiteko abiada hartu dute azkenean Amaiurko gazteluaren setioaren ingurukoak oroitarazteko ekitaldiek. Lan hau argitaratu orduko alehungarren erroresaldi aberkoia ikusia izanen da Baztango herria. Ezin erran UPNn eta PSNn norainoko kezka duten, baina kontent daude, segur, ibarreko ostalariak. Politika hasten da ekonomiatik.

Ez du lan makala erresuma zaharra erreautsekin errepublika berriaren zimendua eraiki nahian dabilen tropak. Zail du, baina nork jakin. Oraingoz, kapitulukako oroigarri sail honi esker santutegi plantako bat dugu, leku aparte kokatua. Leku bat non santu laikoei goraintzi egin eta paisaiaz eta gastronomiaz gozatu. Aberria hasten da begietatik eta tripatik. Honelako otoizleketan ohi denez, mirariren bat gertatu da jada. 500. mendeurrenaren karietara, etorkizuneko Nafarroaz gogoeta egiteko deialdia egiten hasi dira zenbait talde. Zer izan ginen-edo bezain garrantzitsua, edo garrantzitsuagoa, baita zer izan behar genukeen-edo pentsatzea. Horren defentsa egin behar genuke. Defentsa amaiurtarra, bistan dena. ●



UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES



matrikula
irekia



www.uik.eus